

## Estatutua berez hil dadin

Deia, 1983-06-09.

Euskarak *heriotzaren* bi modu bereizten ditu: bat, *pasiboa*, berez datorrena, "heriotza ona izan du", eta bestea, *aktiboa*, "heriotzak eraman du".

Orain Gernikako Estatutoaz gertatzen ari denak aldaera hontaz pentsa arazi dit, zuzen-zuzenean gauza bera ezbadira ere: gure kontrarioak ez du nonbait une honetan eraile gisa agertu nahi; oraindik kristoren haiek egindako lotsaz edo; eta demokraziaren gobernukideak oraindik itxura gordetzen lagunduko diolakoan, aurrez-aurre Espainiako konstituzioak berak babesten duen legearen hausle bezala agertu gabe, Gernikako Estatutua berez hiltzen uzteko jokoan hasi da azken hilabete horietan.

Bidea, maltzurra bezain erraza da:

Espainiako legez lortu zenak gure herrian bidea egingo badu Espainiako Gobernuak Euskal Herrikoari ahalmenak pasa behar dizkio trasferentzia bidez; UCD-k pasa zizkion gobernu zen bitartean lehenengoak, eta PSOE-k irabazi zuenean alderdi hau zen noski, falta ziren trasferentziak pasa behar zizkiona. Sozialistak, horiei zegozkionak berehala pasako zituztela ozenki agintzaria egin eta gero, bidean zetoztenak aparkatu eta horien iturria bera itxi dio gure Gobernuari. Hau nahikoa ez balitz, bien bitartean, kanpaina maltzurra egiten hasi dira PSOE, Madrileko agintariak eta komunikabide batzuk gure herriko jaurlaritza (lehendakaria aurretik), eta EAJ (Arzalluz aurretik) gai nagusi direla.

Eraso ustel honek ez gaitu ixilgeldi araziko.

Etxenike kontseilariak esan du euskaldunak ernetu behar dituen hitza; ez du, noski, Euskal Gobernu berearen izenean esan, berez baizik, baina zozoa ez den arerioak badaki ñabardura honek ez duela gehiegi esan nahi, eta hitz horien atzetik Euskal Gobernu babesten duen eta abertzale sentitzen den herri guztia dagoela. Ez gaituela jokabide desleial horrek kizkurtuko, aitzitik, indartu egingo duela gure herriaren determinazio eta ausartzia hain gurea den eta hainbeste aldiz demokrazia bidez jokatu eta irabazi dugun herri-eskubidea defendatzeko.

Indarkeriaz beldurtu nahi gaituzte.

Beldurraz amore emango ote dugun, *gure herriaren heriotza ona izan dadin*; bestela, heriotza aktiboaren mehatxu zaharra beteko duten asmoa dago, noski, askotan zapaldu gaituztenetan.

Orain, arrosa gorria eskuetan dutenak lagun!

Odolez gorritutako heriotzak Euskal Herria eraman nahi balu bezala.

Ez dute inoiz ikasiko espainolek, zuri nahiz gorri, gure abertzaletasuna badela haiena bezain errespetagarria eta elkarrenganako errespetoak bakarrik erakarri dezakela gure artean pakea.